



Tokiko Gobernu batzarrak, 2021eko martxoaren 4ean egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

7.- HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: 2020RAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK. KRONIKA. - 2021erako egitasmoa eta aurrekontuak aurkeztu ditu Kronikako ordezkariak.

Aurkeztutako diru-kontuetan 65.000,- euroko diru laguntza aurkeztu dute.

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera honela bideratuko da diru laguntza:

Ordainketa era:

2021eko martxoan	32.500 €
2021eko urrian	16.250 €
2022ko otsailen Likidazioa	

Aztertu da Herritarrentzako Zerbitzuak Batzordeak 2021eko otsailaren 25ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Onartzea "Hernaniko Kronika"ren 2021eko udal aurrekontuetan jasota dagoen diru laguntza bideratzea: 65.000 €.

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2021. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko diru laguntzak".

Eta horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114 c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

**Hernanin, 2021eko martxoaren 5ean.
Idazkaria,**